



2021
TXOSTENA

EMAN PAUSOA
GAZTENPRESAREKIN

IN JARS S.L
EKITALDI JASANGARRIAK



gaztenpresa
fundazioa

ERAKUNDE SORTZAILEA



ERAKUNDE KOFINANTZATZAILEAK



KOLABORATZAILEAK



PARTE HARTZEN DUGUN SAREAK



Aurkibidea

01 GAZTENPRESA

02 ERAGINAREN NEURKETA

03 SORKUNTZA PROGRAMA

- Enpresak sortzea
- Finantziazioa
- Kultura ekintzailea
- Gaztenpresa digitala

04 FINKATZEKO PROGRAMA

- Mentoring
- Easi program
- Gaztenpresaren gela

05 PATRONATUA

06 GAZTENPRESA KONTAKIZUNAK



2021 ez da izan espero genuen urtea; izan ere, pandemiak nagusi izaten jarraitu zuen han-hemenka, hasi berriak ziren negozioetan oso eragin negatiboa izaten eta ekintzaileen desafioari heltzeko aukerak nabarmen murriztuz, hau da, ekintzaileei euren buruaren nagusia izateko eta euren lan-bizitzaren kontrola hartzeko desafioari heltzeko aukerak nabarmen murriztuz.

Gaztenpresatik errealitate horretara egokitu gara, aurreko urteetan sortzen lagundu genituen negozioen alde jo ta ke arituz, zeren negozio horiek hainbat behar izan baitituzte: likidezia, saltzeko forma berriak, merkatuak irekitzea, digitalizatzea... Azken batean, beharrezkoa izan da ikuspegi berri bat eskaintzea eta laguntza morala dosi handitan ematea. Denbora, energia eta diru asko inbertitu ditugu horretan: 278 negozio eta 547 pertsona sostengatu ditugu 2021ean, gehien behar zuten alderdietan lagunduz, gardentasunez, errespetuz, ideiekin, tresnekin eta finantziarioekin.

Gaztenpresa arima duen proiektu bat da, eskuzabaltasunez laguntzen diena euren negozio propioa sortzea euren kabuz nekez lortuko luketen

pertsonei. 25 urte baino gehiago daramatzagu horretan, eta harrotasunez kontaktzen ditugu sortzen lagundu ditugun lanpostuak: 11.000 baino gehiago. Aurten urrats bat gehiago egin nahi dugu aurrera, eta gure asmoari buruzko hausnarketa sakon bat irekitzen dugu; zer egiten dugun eta zernolako aldaketak sortzen ditugun pertsonengan, proiektuetan eta –oro har- gizartean. Txosten honetan hainbat datu ezagutu daitezke, baita oso lorpen konkretuak ere, eta horien artean nobedade garrantzitsu bat azpimarratuko nuke: inpaktutxostenaren metrikak sartu izana. Hori guztia egunero hobetzeko nahiarekin egiten dugu, eta ez dago laguntza ematen diegun pertsonak itzultzen diguten irribarrea baino sari hobearik.

Badakigu, halaber, hobetu eta hazten ez den proiektu oro desagertzera kondenatuta dagoela, eta horregatik baliabide mardulak bideratu ditugu geure jardunaren digitalizaziora; alor horretan, azpimarragarriena Gaztenpresa digitala abiatu izana da, hots, web plataforma berri bat, edozein pertsonari ahalbidetuko diona aurkitzea, modu errazean, bere proiektu pertsonala helmuga onera

eramateko tresnak. Ekintzaileek negozio-plana prestatzeko gida zehaztu bat aurkitu ahal izango dute, eta hori funtsezkoa da jakiteko ea buruan aspalditik bueltaka daramaten ideia hori benetan bideragarria ote den. Halaber, pantailaren atzean pertsona bat aurkituko dute, bere esperientzia osoa eta bere jakintza eskainiko dizkiena akonpainamendu horretan, eta baita indarra ematen eta egunero hobetzen lagunduko dieten prestakuntza-pilulak eta –tresnak ere.

Badakigu, ondo jakin ere, ekiten duen edozein pertsona bere ilusio guztia eta bere energia jartzen ari dela proiektu horretan, ideia horretan, baita –eta hau da seguruenik garrantzitsuenabere hurrengo urtetako ahalegin pertsonala, bere dirua edo bere senideena eta bere familiaren mantenua... Azken batean, alor pertsonal eta profesionalean gertatuko zaion gauzarik garrantzitsuen da, inondik ere. Egiaren unea, eta hain zuzen ere hor egon behar du Gaztenpresak, laguntza emateko. Horixe da gure rola, eta horixe da gure konpromisoa.

01

GAZTENPRESA

Gaztenpresa Fundazioa
LABORAL Kutxaren
gizarte-lanaren atal bat da.

**Gure ingurunean ekin nahi duten
pertsonei laguntzen diegu,
arrakasta izateko ahalik eta
aukera handienarekin egin dezaten,
aberastasuna sortuz enplegua
sortzearen bidez.**



**Gaztenpresan 27 urte daramatzagu ekin nahi
duten pertsoneri laguntzen. Eta asko dira garai
horretan atenditu ditugun pertsonak.**

Fundaziotik seriotasun handiz hartzen dugu
hobekuntza, ekin nahi duten pertsoneri sostengu
egokia emateko. Horregatik, auditoria batzuk
egiten dizkigute, hala nola Auditoria finantzarioa
eta Araudia Betetzearen inguruko Auditoria.

Aurten beste urrats bat egin nahi izan dugu, eta
2030 Agendaren nazioarteko esparruaren baitan
neurtu eta hobeto nahi dugu gure hondar aleak gure
ingurunean duen inpaktua, Garapen Jasangarriaren
Helburuekin lerrokatuz; asmoa da ebidentzia
anekdotikotik datu zorrotzetan oinarritutako
ebidentziara pasatzea, sortzen dugun inpaktu
sozialean eraginkortasun handiagoa lortu ahal
izateko. Orrialde hauetan, egindako lanaren zati
bat konpartitzen dugu.

27 urte hauetan



11.404

Sortutako lanpostuak



6.264

Sortutako enpresak

23.353

Eskaerak
Erantzundakoak

183

Milioi eurotan
Finantzazioa

1.297

Artatutako enpresak
Sendotzen

186

mentoring

1.297

Tailerrak
Egindakoak

8.010

PRO konsultak



JON BIXENTE
DE SANTIAGO
MAHASTI



gaztenpresa
fundazioa

IMPAKTUAREN NEURKETA



Zer inpaktu sozial sortzen dugu eta nola egiten dugu?

Inpaktu sozialaren ebaluazioa prozesu bat da, politika, plan, garapen eta proiektuetatik sortzen diren aldaketak edo ondorio sozialak (positiboak eta negatiboak, aurreikusitakoak eta aurreikusi gabekoak) ikertu, planifikatu eta bideratzen dituena. Tresna hau lagungarria da erabakiak hartzeko eta kontuak emateko, hau da, aurrekontu baten xede diren programen eraginkortasunari buruzko informazioa eskaintzen die bai gerentzia mailako eragileei eta bai pertsona interesatuei.

Aldaketa horiek monitorizatzeko, Gaztenpresak sortzen duen inpaktua kuantifikatzea eta monitorizatzea ahalbidetuko diguten jarraipen-adierazleak definitu dira. Kontrol hori funtsezkoa da Fundazioaren jarduna eta berarekin sortzen dugun inpaktua kudeatu ahal izateko.

Inpaktu soziala ebaluatzea erronka bat izan daiteke, arrazoi batzuegatik: irismena eta kontrola, neurtzeko ahalmena (inpaktu sozialak kuantifikatzea zaila izaten da), kanpokotasunak...

Abiapuntu horiek kontuan hartuta, inpaktu soziala neurtzeko azterlan honetan askotariko aldagaiak aztertu ondoren, esan dezakegu Gaztenpresak konpromiso sendo bat mantentzen duela Euskadi eta Nafarroako kultura ekintzaileen garapenarekin, ongizate sozioekonomikoa bultzatuz eta garapen profesionala sustatuz, bai pertsonen mailan eta bai udalerrri eta lurralde mailan, tokiko kontsumoarekin konprometitutako gizarte baten bitartez, ingurune soziala bere ekintzaileen errealitatearekin identifikatzeari esker.

Ekintzailetza jasangarria: 2030 Agenda

NBEk ezarritako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren baitan kokatuta, eta Euskadiko Maila Anitzeko 2030 Agendak proposatutako helmugei begiraturaz, Gaztenpresaren lana inpaktu sozial baten bidez gauzatzen da, eta inpaktu hori bai neurtu eta egiaztatu dezakegu: ekintzailetza eta prestakuntzarako laguntzari esker, esan daiteke ekintzaileen bizi-kalitatea hobetzen dela, eta baita haien ongizatea eta haien ingurunekoa ere, eta hori bai familia-nukleoaren mailan eta bai toki eta komunitate mailan.

Azken inpaktu soziala da ehun sozioekonomiko bideragarria, bidezkoa, berdintzailea eta etorkizunera orientatua sendotzen laguntzea, jasangarritasunaren eta kultura ekintzaileen aldeko konpromiso irmo bati eutsiz.

Talde osoaren, boluntarioen eta erakunde laguntzaile publiko zein pribatuen esperientzia eta ahaleginari esker, era guztietako enpresak sortzen laguntzeko proiektuen inpaktu soziala ezinbesteko balio erantsi

bat da gure ingurunean bokazio ekintzailea duten pertsonen laguntzerakoan; buruan proiektu ekintzaile bat duten pertsonen orientazio, prestakuntza eta finantziario aldetik dituzten beharrei erantzuten diegu, ekintza eta programa konkretuen bitartez.

Ekintzailetza da gizartea eguneroko jarduera ekonomiko eta sozialaren bitartez mugitzen duen oinarria, eta Gaztenpresaren jatorrizko helburuetako bat pertsonak ekitearen errealitateara hurbiltzea da, zeren horixe baita haien garapen pertsonala errazteko biderik onena, haien konfiantza eta autoestimua hobetuz haien enpresa-proiektuak eta prestakuntza sostengatzearen bidez.

Laneratzea eta berdintasun erreala

Gaztenpresa ezinbesteko bultzada bat da gure lurraldeetako ehun sozial eta ekonomikorako funtsezkoak diren planak arrakastaz gauzatu daitezen, betiere balioen aldaketa sustatzen duen ikuspuntu batetik, emakumeen eta gizonen berdintasun erreala lortzeko, berdintasuna lanaren eta enpresaren eremuan sustatuz.

Lan-merkatuan sartzea, enplegurik gabeko pertsonen kasuan, Gaztenpresaren ekintzaren beste inpaktu sozial konkretu bat da.

Ekintzaitzaren bidez diru-sarrerak lortzeko bide bat irekitzen da; honek autonomia finantzario handiagoa ematen du, proiektu bakoitzaren arrakastarako aukerak optimizatzeko eta porrota minimizatzeko beharrezkoa den sostengu profesionalarekin.

Finantzazioa eta kultura sozial ekintzailea

Gaztenpresak aldaketa nabarmen bat ekartzen du, zeren bestela –aukera ekonomikoen faltagatik- nekez garatuko liratekeen tokiko ekintzaitza-proiektuak finantzatzen baititu. Era horretan, Fundazioaren aldatetako bat da gizartea sentsibilizatzea enpresaren eta tokiko ekintzaitzaren balioaz, inpaktua duten bizi-proiektuak garatzeko bitarteko gisa; era horretan, gure ingurunean kultura ekintzailea sortzen laguntzen dugu, ingurumen- eta gizarte-inpaktu handiagoa ekartzen duten proiektuak bereziki nabarmenduz, lehen aipatutako Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat etorritz.

Autonomia finantzarioa sortzea, enpresa-jardueraren bidez, gure gizartearen garapen jasangarri eta berdintzailearen alde egiteko, kalitatezko enplegua sortzearen eta tokiko ehun sozioekonomikoa biziberritzearen bitartez.

Azken batean, Gaztenpresak ekintzaileekin identifikatzen den eta tokiko enpresarekin konprometitu dagoen gizarte batean kolaboratu nahi du, enpresek beren inguruneke bitzta eta aberastasunean duten parte-hartzearen balioa nabarmenduz, eta, hortaz, ekintzaitzaren balioa eta ekarpena Euskadin eta Nafarroan nabarmenduz.



**BEHAR
SOZIALAK**
Konpondu nahi
ditugun

Ekintzaileei
bizi-proiektu "duina"
aurkitzen laguntzea.

Ekintzaileei behar duten
guztian laguntza ematea
finkatu arte
zure negozioarena.

Aberastasuna sortzea eta
desberdintasunak murriztea,
enplegua sortzen duten
enpresak sortzearen
bidez.



LEIRE URETA
NUKKA
ARROPA
SALEROSKETA

Zer Helburu ezarri ditugu inpaktuari begira?

Ekintzaitzaren bideragarritasun ekonomikoa lortzea, ekintzaileak bere "bizi-proiektua" garatu ahal izan dezan.

Beraren ekintzaitza-kompetentziak hobetu ahal izatea, prestakuntza eta akonpainamenduaren bitartez.

Ekiteko eta/edo finkatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea.

Gizartea enpresarien eta tokiko ekintzaitzaren balioaz sentsibilizatzea, inpaktua duen bizi-proiektu bat garatzeko bitarteko gisa. Kultura ekintzailea gure ingurunean sortzen laguntzea.

Tokiko ekonomiari ekarpen positiboa egitea.

JON IBAÑEZ
FISIOTERAPIA

Garapen Iraunkorreko zein helbururi laguntzen diogu?



GEk nagusiki laguntzen du GJH hauetara (5, 8 eta 10)

GEk bigarren mailako ekarpena egiten du GJH hauei (4, 11, 12 eta 17)



BULLFITNESS,S.COOP GIMNASIO

Zer ematen dugu?

LABORAL
kutxa

208
bulegoak



Ekintzaileak Gaztenpresara birzuzentzea; sorkuntza finantzatzen du, zerbitzuak, banku-tresnak eta aseguruak ematen ditu.



gaztenpresa
fundazioa



LAGUN-TALDE

Idea: asieratik ekintzailetzan aditua den pertsona baten laguntza dute.



AHOLKULARITZA

Negoio-plana: negozio-plana egitea eta/edo ebaluatzea. Negozio-eredua.



FINANTZIAZIOA

Finantziaketa: Finantzaketa eta errunaldia aurkitzen laguntzen dizugu. Proiektua abian da.



FINKAPENA

Jarraipena egitea eta enpresari laguntzea, merkatuan jarrai dezan eta kudeaketa-ohitura egokiak har ditzan.



PRESTAKUNTZA

Gaztenpresa gela: bertan trebatu, informatu, hausnartu eta negozio-plana gara dezakete.



MENTORING

Adituak: beren sektorean adituak diren enpresaburu enpresaburu enpresaburu aholkularitza dute.

2021

SORKUNTZA
TALDEA | 10
pertsonek

8,6€
Mailegatutako
milioiak


FINKAPENA
TALDEA | 4
pertsonek

51
webinar

137
mentoreak

ERAGITEN DUGUNA

GIH



2021

278

enpresak

547

lanpostuak

Ekintzaileen enplegua (emakumeak)	%44
(Migratzaileak)	%13
(35 urtetik beherakoak)	%29
(45 urtetik beherakoak)	%26

NEGOZIOEN KOKAPENA:


Probintziako hiriburuak	%38
15.000 biztanletik gorako hiriburuak ez diren hiriak	%33
Hiriburuak ez diren 15.000 biztanle baino gutxiagoko hiriak	%29

GIZARTEAN ETA INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN NEGOZIOAK

%17

ERAGITEN DUGUNA

GIH



2021

278 enpresak

547 lanpostuak

SASOI JURIDIKOA

%74 E. indibiduala

%26 Sozietateak

%25 Koop

%75 SM

ENPRESEN BIZIRAUPENA

FINANTZATU ETA 5 URTERA


%72

5 URTEREKIN EUSKADI-EUSTAT

%44

ERAGITEN DUGUNA

GIH




2021

547
sortutako lanpostuak

EKINTZAILEEN PROFILA



LAN EGOERA



IKASKETA MAILA



IMPAKTUA SOZIO- ECONOMIKOA


Laguntza ematen diegun pertsonengan dugun inpaktua zer-nolakoa den jakiteko, honako hau ezagutzera zuzendutako inkestak egin ditugu:

- Sortutako enpresen iraunkortasuna, laneratze profesionala eta lanpostuen sorrera.
- Ekintzaileen egoera ekonomiko eta finantzarioaren balantzea egitea.




EMAITZAK


Ekiteko prozesua espero zenuena al zen?





Proiektuan emandako denbora.




Lortu ditudan trebetasunak.



Hartu ditudan arriskuak.



Ekarri didan sakrifizio pertsonala.



Behar izan dudan konpromiso-maila.

EMAITZAK

Non lagundu dizugu gehien?



Irekita jarraitzen du negozioak, lehenengo urtearen ostean?

- **% 90ek** esan zigun irekita jarraitzen zuela.
- **Horietatik, % 62k** fakturazioa handitu du.
- **% 55ek** lanpostu gehiago sortu ditu.
- Sortutako lanpostuen **% 77 emakumeek betetzen dute.**
- **Langileen % 30** 30 urtetik beherakoa da.
- **% 55** 30 eta 50 urte bitartekoa da.
- **% 15ek** 50 urte baino gehiago ditu.


Euren soldata-mailari dagokionez:

- **% 47k** esan zuen soldata apala kobratzea ahalbidetzen diola.
- **% 26k** esan zuen estutasun handirik gabe bizitza ahalbidetzen diola.


Itxi zutenen artean: **% 60 lanean ari zen.**

EMAITZAK


Nola aldatu da zure bizitza?




Errealizazio pertsonala.




Nire arauak jarri, kontrola izan.




Nire bizi-kalitatea ekonomikoki aldatu da.




Berezko zerbait izatea.




Gustatzen zaidana lantzea.




Nire ingurunearekin harremanak izatea.




Kontziliazio pertsonala eta laborala.



Gizarteari egiten diodan ekarpena sentitzea.



Laneko egonkortasuna edo egonkortasun ekonomikoa.



Hirugarrenetikiko mendekotasun txikiagoa.

HASIERATIK AMAIERARA
ARTE LAGUNTZEN DIZUGU
ZEURE PROIEKTUA
ABIATZEKO LANEAN.

PROGRAMAK:
**ENPRESAK
SORTZEA**
2021

- 1 Arreta eta aholkularitza pertsonalizatua.
- 2 Zure ondoan gaude behar duzun guztian: Negozio-plana aztertzea, tramiteak egitea, laguntzak eskatzea.
- 3 Finantziarioa, baldintza berezietan.

278
Enpresak sortuta

ARABA	37
BIZKAIA	140
GIPUZKOA	67
NAFARROA	34
GUZTIRA	278

547
Sortutako lanpostuak

ARABA	75
BIZKAIA	253
GIPUZKOA	148
NAFARROA	71
GUZTIRA	547

JARDUERA SEKTOREA



Helburua

Autoenplegua sustatzea langabezian edo langabezian egoteko arriskuan dauden pertsonentzat.

Prozesuak ekin nahi duen pertsonaren identifikazioa eta garapena aurreikusten ditu, baita horren merkatuaren errealitaterako egokitzapenaren azterketa ere, bere egoeraren arabera egokienak diren autoenplegu-aukerak zehazteko eta proposatzeko helburuarekin.

Nori dago zuzenduta

Langabezian, lana galtzeko arriskuan edo lan-prekarietateko egoeran dauden eta bere enpresa sortu nahi duten pertsonen.

Euskal Autonomia Erkidegoan eta/edo Nafarroan bizi diren edo negozio hat sortuko duten pertsonen.



EKIA ETA LURRA SL
Ekilore eta koltza
olioa hotzean
erauztea

03

PROGRAMAK: FINANTZIAZIOA 2021

Finantziazio-plan bat egiteko laguntza, proiektuaren beharrak baloratzeko eta finantziazio-iturri egokiak zehazteko.



244 EMANDAKO
KREDITU

FINANTZIAZIOA 2021 AN
8.690.805 €

FINANTZIAZIOA 2021 AN
183 mill €

71.200€
BATEZ BESTEKO INBERTSIOA
Batez besteko inbertsioa enpresa berriak abiatzeko.

35.618€
BATEZ BESTEKO MAILEGUA
Enpresa-proiektua gauzatzeko beharrezkoa den batez besteko mailegua.



PROGRAMAK: KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA

Fundazioaren helburuetako bat kultura ekintzailea gazteen artean sustatzea da.

Kultura ekintzailea sustatu nahi duten unibertsitate, lanbide heziketako zentro, enpresa eta erakundeak sostengatzen ditugu.

Ekitalditan parte hartzen dugu, fundazioaren lana ekintzaileei ezagutzera emateko, haien adina zeinahi delarik ere.

2021. urtean, hainbat hitzaldi eta ekitalditan parte hartu dugu, horietako asko online formatuan eginda.

Gainera, unibertsitate-ingurunearekin hartuta dugun konpromisoa indartzeari begira, lankidetzak izan ditugu Junior-Enpresarekin. Lankidetzak horien ardatza izan da merkatura iristen laguntzea eta haien zerbitzuen kalitatea lantaldeetako pertsonekin probatzea.



03

GAZTENPRESA DIGITALA

Gaztenpresa Digitala prestakuntza jasotzeko, informatzeko, hausnartzeko eta negozio-plan bat gure taldearen zuzeneko akonpainamenduarekin garatzeko espazio bat da.

Betiko aholkularitza presentziala jaso dezakete, eta gainera online akonpainamendu berri bat ere, protagonismoa ekintzaileari emateko pentsatua.

Erregistratu ondoren, euren arlo pribatura sartu daitezke eta aholkulari batek proiektuen jarraipena egiten du, beraren aukerak aztertzeko.



Gaztenpresan laguntzen dizugu zure negozioa garatzen, proiektuaren hasieratik haren finkapenera arte, eta orain, gainera, online akonpainamenduarekin.



04

PROGRAMAK:
FINKAPENA
2021

Enpresaren jarraipena eta beraren aldeko sostengua, merkatuan jarraitu eta kudeaketa-ohitura egokiak eskuratu ahal izan ditzan.



CARIELA
BY CARMEN
GINEA SL
MODA

ADIERAZLEAK



AHOLKULARITZA
ESPEZIALIZATUA



CONSULTING PRO



MENTORING-PROGRAMA



ONLINE PRESTAKUNTZA



1077
ESKAERAK



731
DIAGNOSTIKOAK
EKINTZA-PLANAK



129
PROIEKTUAK
AHOLKULARITZAN



33
HARREMANAK
MENTORING



341
CONTSULTAK
CONSULTING PRO



51 - 507
TAILERRETAKO
PARTE-HARTZAILEAK



67
TUTORETZA DIGITALAK

ADRIANA GUEVARA
CV33 pentsioa

PROGRAMAK: MENTORING

Gaztenpresa akonpainamendu pertsonalizatu bat kudeatzeaz arduratzen da, negozioak finkatzen laguntzeko.

Ekintzailearen eta/edo enpresa-kudeaketaren alorrean esperientzia duen pertsona bat beste baten ondoan egoten da, esperientzia eskainiz eta erabakiak sendotasunez hartzen lagunduz, beraren kudeaketa-gaitasunak hobetzeko xedez.

Kontua da sarea zabaltzea, esperientzia handiko pertsonen garatutako kontraste zorrotz bat egiteko.

Bai mentoreek eta bai programan sartzen diren ekintzaileek prestakuntza-tailer batetik pasatu behar dute.

33 MENTORING HARREMAN 2021EAN



ERIZAINZA
DERMOESTETIKOKO
ZENTROA
(koop)

EASI PROGRAM

Negozioak garatzeko zerbitzua, emigranteei zuzendua.

EaSI programaren funtsezko helburuetako bat da prestazio-jasotzaileen inklusio finantzario eta soziala estimatzea, euren mikroenpresak ezarri edo garatu nahi baina kreditu-merkatu konbentzionalera sarbide mugatua badute edo inolako sarbiderik ez badute.

Helburua da enpresa-espirtua talde kaltebera horien artean bultzatzea, zeren sarritan desafio handiko ingurune bat aurkitzen baitute negozio bat euren jaioterria ez den herrialde batean ezarri eta garatzerakoan (hizkuntza-barrera, karga administratiboa, tokiko legedia ez ezagutzea, etab.).


KUDEATUTAKO 23 PROIEKTU



Normaltasun berrira egokitzen jarraitzeko, enpresei honako zeregin hauetan laguntzen dieten tailerrak egin dira:

- Online presentzia izatea, bezeroak aurkitzeko eta haiekin kontaktatzeko.
- Likideziagatik, diruzaintzaren kudeaketagatik eta online kobratzeko metodoengatik duten kezka konpontzea.
- Ekiteko konpetentziak hobetzea.

Webinar praktikoak egin dira, horiek guztiak saio tekniko pertsonalatu eta espezializatuekin batera (tutoretza digitalak).



GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA:

Patronatua Fundazioaren gobernu-, administrazio- eta ordezkartza-organo gorena da, eta Fundazioaren kudeaketari lotutako zuzendaritza- eta kontrol-eskumenak ditu, hau da, sortze-helburuak betetzeko beharrezkoak diren eskumenak.

Gaztenpresa Fundazioa erakundeak modu egokian funtzionatzea xedetzat duen kudeaketa-sistema baten bidez gidatzen da.

Gardentasun eta ardurarekin, gobernu- eta ordezkartza-eginkizunak une bakoitzean gauzatzen dituzten pertsonak zeinahi direlarik ere.

Gardentasuna eta gobernu ona beharrezko tresnak dira, haren ibilbide luzearen hasieratik eta haren etorkizuneko iraunkortasunerako.

Estu lotuta daude konfiantza bere interes-talde guztiengan sortzearekin: pertsona ekintzaileak, enpresak, bertan lan egiten duten profesionalak, kolaboratzaileak, gobernuak, eta abar.

Gaztenpresa Fundazioaren Patronatua honako pertsona hauek osatzen dute:

PRESIDENTEA: IBON URGOITI

PRESIDENTEORDEA: OSCAR MUGUERZA

IDAZKARIA: SUSANA ANDRÉS

BATZORDEKIDEAK:

- IÑIGO MARTINEZ
- JAVIER CORTAJARENA
- JOSEBA SAGASTIGORDIA
- IÑAKI PEÑA



EGOERAREN BALANTZEA 2021

AKTIBOA	2021	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2021
AKTIBO EZ-KORRONTEA	187.034	ONDARE GARBIA	715.586
		PASIBO EZ-KORRONTEA	767.285
AKTIBO KORRONTEA	1.535.040	PASIBO KORRONTEA	788.663
AKTIBO GUZTIRA	1.722.074	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	1.722.074

* Eurotan adierazita.



A) EKITALDIKO SOBERAKINA

2021

OPERAZIO JARRAITUAK	
1. Jarduera propioaren sarrerak	1.176.587
a) Promozio, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak	904.200
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	272.387
2. Salmentaren eta merkataritza-jardueraren beste sarrera batzuk	6.286
2. Gastuak diru-laguntzengatik eta beste batzuegatik	(506.817)
a) Diruzko laguntzak	(27.766)
a) Diruz besteko laguntzak	(479.051)
3. Jardueraren beste sarrera batzuk	1.368
4. Jardueraren beste gastu batzuk	(474.335)
5. Ibilgetuaren amortizazioa	(16.162)
6. Hornigaien gehiegizko kantitatea	-
JARDUERAREN SOBERAKINA	186.927
7. Finantza-sarrerak	-

FINANTZA-OPERAZIOEN SOBERAKINA	
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK	186.927
11. Mozkinen gaineko zerga	-
ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AITORTUA	-
ERRAKUNTZEK ERAGINDAKO DOIKUNTZAK	-
OSOKO EMAITZA, ONDARE GARBIAK EKITALDIAN IZANDAKO ALDAKETA	186.927

Jokabide-Kodea

GAZTENPRESAk esplizituki eta irmoki adierazi nahi du «zero tolerantzia» duela delituzko egitateekin, horiek debekatu egiten dituela eta horien aurka dagoela. Era

berean, erakundeari aplikatu beharreko zigor-arloko legeria betetzeko eskatzen du, eta betetze-kultura hori zabaldu eta gehitu nahi du fundazioaren helburuetara eta jarduera osora.

GAZTENPRESAko pertsona guztiek, Patronatuko kideek eta plantillako langileek —finkoek eta, baleude, behin-behinekoek— nahitaez bete behar dituzte Politika honetako eta hari

lotutako compliance penaleko kudeaketa-sistemako baldintzak, baita onartutako etikaeta jokabide-kodea eta dauden prebentzio-kontrolak eta -prozedurak ere.

Halaber, honako hauei ere aplikatuko zaie Politika hau: gure negozio-bazkideei, onuradunei, hornitzaileei eta arrisku penala izan lezaketen jardueretan Gaztenpresarekin parte hartzen duten beste hirugarren batzuei (horrenbestez, behar bezala jakinaraziko zaie).

Politika hau eta berau hedatzen duen Jokabide Kodea eskuragarri daude komunikazio publikoko kanaletan: (<https://gaztenpresa.org/eu/>).

Konpromiso honek erakundearen arrisku penalekiko esposizioa minimizatzeko aukera ematen digu, arrisku txikiak baino handiagoak direnak kudeatuz. Horrela, esparru egokia eskaintzen du ezarritako compliance penaleko helburuak zehazteko, berrikusteko eta lortzeko.

Erakundeak compliance penalerako organo bat du, beharrezko baliabideez hornitua, ezarritako Betetze Penaleko Sistemaren eraginkortasuna diseinatzeaz, ezartzeaz, kudeatzeaz eta egiaztatzeaz arduratzen dena.

Organo horrek ahalik eta gaitasun eta aginpiderik handiena du bere eginkizuna behar bezala betetzeko, eta sistemaren jarraipen eta kontrol egokia egiten du. Hortaz, helburuak lortzeko eta etengabe hobetzeko eraginkortasuna bermatzen du.

Politika honen mende dauden pertsona guztiak politika betetzera behartuta

daude, bai eta, hori ez ezik, ez-betetze edo arrisku penalaren susmagarri den edozein gertakariren edo jokabideren berri ematera ere. Horretarako, salaketa-kanal bat dago: kanaletico@gaztenpresa.org. Horren bidez, ez-betetzeen berri eman daiteke, baita arlo horretako edozein gairi buruzko kontsultak eta zalantzak ere. Kanal horren erabiltzaileek konfidentzialtasun osoko tratamendua jasoko dute, eta ezin izango dute errepresaliarik jasan fede onez erabiltzeagatik. Jasotako gaiak ezarritako prozeduraren arabera bideratu eta kudeatuko dira.

Compliance penaleko politikaren edo sistemaren eskakizunak ez betetzeak barneeta/edo kanpo-ondorioak izan ditzake, eta ondorio horiek gertaeren larritasunarekiko proportzionalak izango dira, hartzaile guztientzat berdinak. Bestalde, aplikatu beharreko araudia errespetatuko dute.



27 urte historiak metatuz

23.000 proiektu baino gehiago atenditu ondoren, esan dezakegu horien atzean zeuden pertsonen adinako anekdota eta historiak gordetzen ditugula. Askotariko arrazoiengatik ekitea erabaki zuten pertsonak. Batzuek euren bizitza eta euren familia hobetzeko, eta beste batzuek, besterik gabe, liluratu egiten zituena garatzen jarraitzeko. Energiatz betetzen gaituzten eta aurrera egin eta hobetzera motibatzen gaituzten historiak.

Lerro hauen azpian, María Santórumek bere ekite-historia kontatzeko idatzi dizkigun lerroak konpartitzen ditugu zuekin. Eskerrik asko María.

LOGOAREN ATZEAN DAGOEN PERTSONA

Ziurgabetasuna. Ilusioa. Urduritasuna. Adorea. Antsietatea. Itxaropena. Beldurra. Irrika. Hitz horiek Gaztenpresarekin kontaktatu orduko ekintzaileok sentitzen ditugun emozioen zurrunbiloaren lagin txiki bat besterik ez dira. Baliteke aldi bat eramatea ideiarri bueltak ematen, baina inoiz ez da erraza izaten ozen esatea geure negozioari ekin nahi diogula. Zer esango ote dute? Ideia ona irudituko zaie, ala lelokeria bat? Ekonomikoki bideragarria izango da? Benetan daude prest niri bidean laguntzeko? Ekiteko abentura hasten duzunean, zure bizitza

aldatu egiten da. Askok pentsatu dut errelatu hau idazteko moduz; izan ere, ekintzailezari buruz dauden historiak ekintzaileen kopuruaren adinakoak dira: zenbat ekintzaile, hainbat historia. Ezin ahaztu dezakegu txosten ekonomiko baten estatistika bakoitzaren, finantziarako eskari bakoitzaren eta enpresa berri baten logotipo bakoitzaren atzean badela benetako pertsona bat, bere ametsi eusten diena bere proiektua loratzera iritsi dadin. Pertsona bat, bere ideiarri aldeko grina izugarria duena, hainbestearino non hortzez eta haginez borrokatzeko prest baitago ideia hori aurrera ateratzeko. Ekite dugun guztiok baditugu gauza komun batzuk, baina egiten dugun bidea desberdina izaten da. Batzuek gaztetatik amesten zuten euren proiektuarekin, eta ikasketak amaitu ondoren heltzen diote ekiteari; beste batzuek euren arbasoetatik oinordetzen dute grina eta haien ondarea bizirik mantentzen ahalegintzen dira, eta beste hainbat saiatzeko dira euren zaletasunak bizi-proiektu bihurtzen. Gaztenpresarekin egiten dugun lehenengo elkarrizketa horretara iristen garenerako, bakoitzak eginda dugu geure ibilbide propioa.

Nire kasuan, hitzen aldeko grina eta liburuen aldeko maitasuna errotuta izan ditut berez nire haurtzarotik. Beste haur asko baino askoz ere lehenago hasi nintzen

irakurtzen eta idazten. Txikitatik liluratuta geratzen nintzen liburu, egunkari eta aldizkarietan ikusten nituen eta helduek –itxuraz– ulertzen zituzten sinbolo haiekin. Letren forma bihurtzutsuek, hitz bakoitzaren estetikak eta paragrafo bakoitzean gordetako misterioak liluratu ninduten. Irakurtzen ikasi nuenean, ezin izan nintzen gelditu. Etxean liburu asko egon ziren beti: entziklopediak, Historia, Filosofia eta Literaturari buruzko tratatuak, eleberriak, komikiak, testu-liburuak, haur-irratiek... Urteak aurrera joan ahala, guzti-guztiak irentsi nituen, poliki-poliki. Eta irakurtzen bukatu nuenean, gehiago bilatu nituen. Nerabezaroan idazten hasi nintzen. Koadernotan, egunerokotan, orri soltetan, baita nire aitaren liburuen baten ertzetan ere (barkatu, aita).

Haurtzaroan, guztioi galdetu digute noizbait: zer izan nahi duzu nagusia zarenean? Nire erantzuna berbera izan zen beti, eta ez da fitsik ere aldatu nire berrogeita bat urteko bizitzan. Neuk idatzi nahi dut eta liburuetara dedikatu. Eta orain, hitz hauek teklatzen ari naizen bitartean, hunkitu egiten naiz amets hori errealitate bihurtzeko bidea hasita dudalako. Buelta asko eman ditut honaino iritsi arte, baina orain badakit egin beharreko bueltak zirela nire ekintzailetzaren abentura hasteko.

Liburuetara dedikatu nahi duzula esaten duzunean, askok pentsatzen dute hori utopia bat dela. Nerabezaroan zerbait "serio" ikastera bultzatzen zaituzte, "benetako" lan bat bilatzera. Neuk amore eman nuen iritzi horien aurrean eta nire ametsa geroratu. Batxilergo administratiboa ikasi nuen, gero goi mailako heziketa-ziklo bat, eta Ingalaterrara aldatu nintzen, hori beste amets bat baitzen niretzat. Bertan etxebizitza bat aurkitu nuen, baita lan bat ere bai, finantza-erakunde batean. Bertan gogor lan egin nuen, karrera bat ikasi eta enpresan mailaz igotzen nintzen bitartean. Finantza-zuzendari gisa ikasi nituen gaitasun profesionalak hain dira ugariak, non zaila baita guztiak aipatzea, baina ukalezina da ekintzaile gisa funtsezkoak izan direla niretzat.

Hamarkada bat pasatxo han egon ostean, etxera itzultzea erabaki nuen. Finantzak ez ziren nire bokazioa, eta, hortaz, irakaskuntzan aritzea erabaki nuen, nire hurrengo urratsez erabakitzen nuen bitartean. Zenbait urte pasatu ditut ingeles komertziala enpresatan irakasten eta profil profesionaleko ikastaroak ematen, Araba eta Gipuzkoako Merkataritza Ganbarekin eta beste eragile batzuekin kolaboratuz. Irakaskuntza baliagarria izan zait askotariko lantaldeak, tamaina askotako enpresak eta mota oso desberdineko profil profesionalak ezagutzeko. Eta esperientzia horietako

bakoitzak ekiterakoan oso garrantzitsuak izan diren ezagutza eta hausnarketak eskaini dizkit.

Orain dela hiru urte lortu nuen nire beste amets bat betetzea eta nire lehenengo eleberria argitaratu nuen. Hainbeste denbora neraman eleberria idazteko gogoarekin, non lehenengo aleak iritsi zirenean negar egin bainuen. Eta orduan loratu zen ernamuinduz joan zen hazia: saiatzea, oraingoan benetan, liburuetara dedikatzea. Modu asko daude hori egiteko: liburutegi batean lan egin dezakezu, liburu-denda bat ireki, inprimategi edo banaketa-enpresa batean jardun, idazlea izan edo argitaletxe batean lan egin. Nire bigarren eleberria idazten hasten ari nintzen bitartean, hausnarketa-prozesu serio bat hasi nuen liburuetara dedikatu ahal izateko egin beharko nuen bidez, literaturaren eta edizioaren arloko profesional batzuen aholkuak jasotzen nituen bitartean.



Hausnarketa horretan, gogoan beti izan nuena izan zen liburuak idatzi ez ezik haien sorkuntza-prozesu osoarekin gozatu ere egiten dudala: testuaren berrikuspena, estiloaren zuzenketa, maketazioa, azalaren diseinua, paper eta koadernatze motaren aukeraketa... Niretzat, prozesu osoa da liluragarria. Beraz, agian konklusio logikoa izan

zen nire argitaletxe propioa irekitzeak batzen zituela bai nire ametsak eta bai nire gaitasun profesionalak eta nire esperientzia. Aurrena nire ideia azaldu nien familiari eta lagun hurbilei, eta hurrena zenbait hilabete eman nituen kalkulu ekonomikoak, merkatu-ikerketa eta bideragarritasun-planak egiten, nire ideia bideragarria ote zen ikusteko. Eta orduan iritsi zen Gaztenpresari lehenengo aldiz deitzeko unea, hots, errelatuaren hasieran aipatu dudan dei hura egiteko unea, hain emozioz bete.

Nire kasuan, horren aurretik nire Laboral Kutxaren bulegoko zuzendariaren gomendioa etorri zen: finantzen profesional bat, logo baten atzean pertsona bat dagoela konturatzeko gai dena. Berak gomendatu zidan Gaztenpresaren aholkua jasotzea, eta horrela egin nuen. Zorte izugarria izan nuen, zeren Teresa, prozesuan lagundu zidan pertsona, beste profesional bikain bat baita. Atsegina eta arretatsua, nire ideia entzun zuen eta proiektua abiatzeko modurik onena azaldu zidan. Egin beharko nituen plan ekonomikoak gomendatu zizkidan, baita kontuan hartu beharreko aurreikuspen finantzarioak ere. Eta, niretzat garrantzitsuena, sostengatuta eta lagunduta sentitu nintzen ekiteko abenturaren hasiera korapilatsu eta nekagarri horretan.

Eta hemen nago orain, urtebete geroago, grina oso-osorik eta urrats sendoz aurrera egiten nire proiektuan: Uzanza Argitaletxea. Badugu egoitza, eta liburuzale amorratuen talde txiki baina profesional bat gara. Gure katalogoa oraindik ere oso txikia izan arren, gure aurtengo argitalpen-egutegia kementsu dator eta zenbait argitalpen egingo ditugu haurrentzat eta gazteentzat, baita eleberriak eta dibulgazio-liburuak ere. Eta, urratsez urrats, aurrera jarraitzen dugu proiektuaren finkapenean. Irrikaz, baina baita buruaz ere.

“ **Zer izan nahi duzu handitan? Nire erantzuna beti berdina izan zen, eta ez da batere aldatu nire berrogeita bat urteko bizitzan: nik idatzi egin nahi dut, eta liburuei ekin** ”




Hauxe izan da ekintzaile gisa egin dudan bidea eta hau da nire historia pertsonala, txosten ekonomiko honen estatistikak osatzen dituzten beste historia ugari horietako bat. Eskerrak eman nahi dizkizuet, bihotz-bihotzez, Gaztenpresaren moduko fundazio bat posible egiten duzuen guztioi; bertan, ekintzaileok ez dugu gure proiektuari eta bere finantziarioari buruzko aholkularitza soilik jasotzen, baizik eta funtsezko sostengua ere gure proiektuak emankorrak izan daitezen eta aurrera atera ahal izan daitezen.

Eskerrik asko, halaber, gurekin zuzeneko harremana duzuen eta logoaren atzean dagoen pertsona ikusten dakizuen profesional guztioi. Zuek hor egon gabe, ekiteko abentura askoz ere zailagoa izango litzaiguke.

María Santórum Alaña
USANZA ARGIALETXEA



TONY SANCHEZ
Camperizazioa
Furgonetak



gaztenpresa
fundazioa



900 101 143

info@gaztenpresa.org

www.gaztenpresa.org

